

idazkaritza-kontuhartzailletza

2018/12/18an EGINDAKO EZOHIKO OSOKO
BILKURA .

SESIÓN EXTRORDINARIA DEL PLENO
DE LA CORPORACIÓN. Día
18/12/2108.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburu ordea

Josu Ezkurdia Santamaría

Zinegotziak

Maria Purificación Regidor Varela
Maite Zubia Atxaga
Maite Uribe BEristain
Aitor Zubizarreta Alegría
Edorta Barandiaran García
Aintzane Agiriano Errasti
Maider Otamendi Tolosa
Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza
Rafael Bernal Gato.

Idazkaria

Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2018ko abenduaren 18an, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkura aretoan, Josu Ezkurdia Santamaría jarduneko Alkate-Udalburu jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, ezohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ezingo zela etorri adierazi zuen Jose Ramon Zubizarreta alkate jaunak.

En Eskoriatza, siendo las 18:30 horas del día 18 de diciembre , en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente en Funciones Josu Ezkurdia Santamaría, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. Excusa su asistencia el Alcalde Jose Ramón Zubizarreta.

idazkaritza-kontuhartzaitza

1.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK

Alkatzek 2018ko abenduaren 11ra arte hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenaren kopia bana entregatu da. Era berean, abenduaren 17an hartutako erabakiaren berri ere eman da, bertan, Alkateak, karguan jarraitzeko aldi baterako ezintasunarengatik, hirugarren alkateordeari, Josu Ezkurdia Santamariari, eskuordetzen dizkio Alkatzeko funtzoak, horien artean, udalbatzar honetako buru izatea.

Berariaz eman dira ere 24/2018 eta 25/2018 kreditu aldaketa espedienteak onartzeko erabakien berri.

2.- 2019. URTERAKO UDAL AURREKONTUA ONARTZEA.

Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak diktaminatutako aurrekontu proposamenari buruzko dokumentazioaz gain, bertaratutako zinegotzi guztiekin jaso dute diktaminatutako proposamenari Rafael Bernalek, IRABAZI-Eskoriatzako zinegotziak, aurkeztutako zuzenketen kopia.

Josu Ezkurdiak proposatu du zuzenketak bloke bezala aztertu eta bozkatzea eta proposamen hori bototara jarri du. Proposamena honela arrazoitu du: bi hilabete baino gehiago egon gara aurrekontu proiektua lantzen, teknikarien zein udal taldeen proposamenak jaso dira, hiru batzorde egin dira; IRABAZIrekin izan ezik, bilerak egin dira gainerako talde politikoekin; proposamena batzorde batean diktaminatu eta onartu ondoren aurkeztu ditu IRABAZIk zuzenketa horiek, eta gainera, ez da egon behar beste denborarik horiek aztertu eta eztabaidatzeko, eta beraz, gure ikuspuntutik uste dugu ez dela zuzen jokatu. Proposamenetakoren batekin ados egon bagintezke ere, ez gara sartuko funtsa aztertzera arrazoi horiengatik, eta uste dugu IRABAZIk ez duela aprobetxatu aurrekontuak negoziatzeko eta beraien proposamenak eztabaidatzeko aukera, beste talde politikoek egin dutena.

Udalbatzarburuak bototara jarri du zuzenketak osotasunean bozkatzea.

Aldeko 5 botorekin (EAJ-PNVren 4 eta EEEren 1) eta aurkako 5ekin (EH BILDUREn 4 eta IRABAZIren 1), udalbatzarburuaren kalitatezko botoarekin erabaki da, hau da, zuzenketak osotasunean bozkatzea erabaki da.

Erabaki horren ondoren, hitz egiteko txanda ireki du Udalbatzarburuak:

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAA4Q4A1.f4RZ>

2018/12/18

Ez Ohiko Osoko Bilkura

Pleno extraordinario

idazkaritza-kontuhartzailletza

- Rafa Bernal: Ian kontuek zein kontu pertsonalek ez diotela utzi proposamen bat askoz ere lehenago aurkezten justifikatu ondoren, adierazi du denborarena aitzakia bat besterik ez dela, bere ustez, proposamenak eztabaidatzeko gogorik egon balitz egin zitekeelako. Ondoren berak egindako zuzenketen edukia azaldu du: guk beti aurkezten ditugu zuzenketak, eta zuzenketa horien helburua, beste urte batzuetan bezala, zuzentzea da, batere gustatzen ez zaigun aurrekontua berbideratzea, eta ez zaigu gustatzen uste dugulako beti bide beretik doazen aurrekontuak direla: obrak, eta inoiz ez dituztela lantzen diagnostikoak, etorkizunean zer egingo den aurreikusiko duten proiektuak. Zuzenketa horiek bi zati bezala dituzte. Alde batetik, partidak kendu edo murrizten dira. Uste dugu San Pedroko parkea zaharberritzea ez dela inolako lehentasuna, eta diru horrekin beste gauza batzuk egin daitezkeela, konponketaxoren bat parke horretan barne. Murrizketa atal horretan sartzen dira ere itunpeko ikastetxeari ematen zaizkien laguntzak. Uste dugu laguntzak eman behar bazaizkio itunpeko ikastetxeari, publikoari ere eman behar zaizkiola. Horregatik, Arizmendiri laguntzeko bi partida kentzea eta laguntza hori Luis Ezeizarekin banatzea eskatzen dugu. Zuzenketen beste zatiari dagokionez, honakoak jartzen ditugu sartu beharrekotan: jabari publiko hidraulikoa; iaz bezala, partida bat jarri dugu, uste dugulako konpromiso bat dugula URArekin, eta horregatik partidaren bat egon behar dela. Partida hori 4.000 eurokoa edo euro 1ekoa izan daiteke, hemen denok dakigu-eta urtean zehar, kreditu aldaketa bidez, igo daitekeela. “Mugikortasun jasangarrirako azterketa” behin eta berriz agertzen den gai bat da, eta uste dut iaz zuek (EH BILDUri zuzenduta) ere eskatu zenutela. Mahai bat eratzeko proposamen bat egin zen iaz, baina, gaia politizatzea zela esan zelako atzera bota zen, eta guk berriz ere esan nahi dugu mugikortasuna Eskoriatzan zertan den ebaluatu eta proiektu batekin landu behar dela. “Kulunkaren” gaia; gogoratzen duzue zer gertatu zen iazko ekain-uztailean? ia itxi egin behar izan zela ez zegoelako behar beste matrikularik. Udal honetan esan zen zerbait egin behar zela horri buruz. Guk bekak ematea proposatu genuen, lanean hasi eta zezenak berriz ere ez harrapatzeko ekainean. Testuliburuak eta ikasmaterialak erosteko laguntzak, uste dugulako zenbait pertsonentzat gehiegizkoa izan daitekeela material hori erostea eta, beharbada, ezin dituztela beka arruntak eskuratu. “Ibilgailu elektrikoentzako karga-puntuak”: udalzaingoarentzat ibilgailua erostea planteatzen da (argitu zaio eletrikoa izatea planteatzen dela), eta elektrikoa izango bada karga-puntu bat beharko da, eta uste dugu

idazkaritza-kontuhartzailletza

hemen bertan, udaletxearen atzealdean jar daitekeela. Herritarrek ere erabili ahal izango lukete, eta karga-puntu bat izateak bultza liezaietik herritarrei horrelako ibilgailuak erostera. “Ingurumena”: guztiok ezagutzen dugu klima aldaketari buruzko txostenetik, klima aldaketa begi bistakoa da, hor dago, pinuena ere hor dago... eta ingurumenaren gaiari udal honetan ez zaio batere kasurik egiten. Paraleloki gauza batzuk egiten dira, baina, ez zaio gaiari hasieratik heltzen. “Berdintasuna”: berdintasuna egunero dago mahaigainean, aurten mugimendu nahiko indartsua ikusi da gai horretan, eta nik uste dut beharrezkoa dela gehiago inbertitzea hor. “Gazteria” gaian, antzerakoa. Kontseilu sozialari dagokionez, sortuta dago eta uste dut partida bat egon beharko litzatekeela izan daitezkeen gastuetarako. 80.000 euro horiekin kontsumo arduratsuari buruzko kanpainia ere egin zitekeen. Batez ere, orain, Gabonetan, kontsumoa gainezka dugunean. Eta gero, beste gai bat ere bada, immigrazioarena. Ikusten ari gara nola hasten ari diren talde xenofoboak. Nik ez dut ikusten hemen arazo handirik dugunik, baina, uste dut arazoei aurrea hartzen eta horri buruzko egoeraren gainezko azterketa bat egiteko unea dela. Eta gero, “hiri altzariak” partida handitzearena dago. Eta, gainerakoari buruz, bada, elizateetako inbertsioak eta Gabonetako argien gastua murriztea, egin daitekeela uste baitut.

Rafak bere txanda amaituta, Udalbatzarburuak galdu du ea norbaitek baduen zuzenketei buruz zerbait esateko. Ezezko erantzunak jaso ondoren, bototara jarri ditu zuzenketak.

Aurkako 5 botorekin (EAJ/PNVko 4 eta EEEko 1), aldeko boto 1ekin (IRABAZI) eta EH Bilduko 4 zinegotziek abstentuta, zuzenketak ez dira onartu.

Ondoren hitza hartu du Josu Ezkurdiak, eta bilkuraburu eta Ogasun arloaren arduradun den heinean, honako hau esan du: azaldu dut hiru batzordetan zein den gutxi gorabehera onar dadin aurkeztu dugun aurrekontua, zeintzuk diren partida esaguratsuenak, zenbakiek ari garelako, eta gero etorriko dira proiektuak. Beste urte batzuetan egin dugun bezala, guk, gastu arruntaren aurrean, lehentasuna eman diegu inbertsioie, gastu arrunta handitzen baldin bada une bat iritsi daitekeelako, diru sarrerak jaitsiz gero, ezingo zaion aurre egin gastu horri. Alde horretatik oso pozik gaude inbertsioetan 310.000 euro erabiltea lortu dugulako, eta hori iaz baino % 34 gehiago da. Guk uste dugu zenbait jarduerez gain, HERRIGINTZA inbertsioekin egiten dela, eta inbertsio horiek hainbat motatakoak izan daitezkeela. Aurten ibilgailu elektrikoa dugu, San Pedroko

idazkaritza-kontuhartzailletza

parkea, esku hartzea behar duena, arazoak ematen baititu; eta ez bakarrik inbertsioak "adreiluan", hori baita batzuk aurpegitzen digutena, baizik eta udalari begira ere inbertsioak planteatzen ditugu, eta hor dago 70.000 euroko partida ibilgailu berri bat erosteko gure brigadari, egungoa oso zaharra delako eta lanerako egoera oso onean ez dagoelako. Orokorean, aurtengo aurrekontuaren zenbatekoa iazkoarena baino % 3 handiagoa da, guztira, 5.590.028 euro. Hori egin izanda, batez ere, foru funtsaren ekarpenak izandako igoerarengatik, iaz baino 139.000 euro handiagoa izan baita, hau da, % 5,4. Foru funtsetik 2.706.943 euro jasotzea espero dugu. Nahiz eta Aldundiak diru gehiago aurreikusi guretzat, guk, zuhurtziaz, eta bere garaian hartu genuen moduko sustorik ez hartzeko, zerbaite gutxiago aurreikusten dugu. Diru-sarrerei dagokienez, foru funtsarenak aipatzea merezi du, zerga eta tasena bere horretan mantentzen baita honakoak izan ezik: urarena, Ur Kontsortzioak guri fakturatzen digun heinean igotzen delako, eta kirolegiko abonatuuen tasena, hala ere, kirolegiko jarduerena bere horretan mantentzen da. Hori diru sarrerei dagokienez; eta gastuei dagokienez, berriz, esan dudan bezala, inbertsioen kapituluua nabarmen igotzen da, eta ez hori bakarrik, gizarte helburuko partidak (gizarte zerbitzuak, gazteria eta enpleguak) % 27 igotzen dira. Igoera handia da, egia bada ere neurri handi batean hori horrela izan dela Udalak bere gain hartu behar izan duelako finantzazioaren zati bat, orain arte Foru Aldundiak bere gain hartzen zuena. Beste kapitulu garrantzitsu bat langileena da, soldatak izan duten igoerarengatik igotzen dena, baina, azkenean, esan dudan bezala, inbertsioak igotzeko eta gastu arrunta mantentzeko egiten den ahalegina da garrantzitsuena. Eta ez, IRABAZIk proposatzen zuen bezala, gastu arrunta igotzea eta inbertsioak geldiaraztea.

Esan behar da ere saiatu garela udal langileei eta herritarrei entzuten, eta, zentzu horretan, beraiek egindako 30 proposamenetik gora sartu ditugu. Sartu ditugu ere Elizateak eta Bilduk egindako proposamenak. Egia da aurten ez dugula sartu IRABAZIren proposamenik, baina, beste urte batzuetan sartu ditugu batzuk. Badakigu hori inoiz ez dela nahikoa izan beraiek alde bozkatzeko, eta errespetatzen dut, baina argi utzi nahi dut gobernu talde honen jarrera beti izan dela proposamen guztiak kontuan hartzearena, eta gure politika eta estrategiari jarraituta besteen iritzia kontuan hartzen saiatzea. Oraingoan saiatu gara BILDUREn proposamenak sartzen, eta ia denak sartu ditugu. Egia da, beharbada denbora faltarengatik, ez garela gai izan hitzarmen bat egiteko, 11 zinegotzitik 10ek aurrekontua onartzea ekarriko lukeena, baina, egia da BILDUREn proposamenak sartu ditugula, eta beti izan den moduan, gure konpromisoa horiek gauzatu ahal izatea da.

idazkaritza-kontuhartzailera

- Rafa Bernal: ba, gure bota EZEZKOIA izango da, zuzenketa guztiak atzera bota dira. Zuzenketa gorabehera, guk zuzenketekin nahi duguna gureak ez diren aurrekontua zuzentzea baita. Gure aurrekontua etorkizunari begirakoak izango lirateke. Duela lau urte, agintaldia hasi zenean krisi latza genuen ekonomia, gizarte eta ingurumen aldetik. Eta, uste dut gaur egun krisi horretan gaudela, eta beharbada, okerragora egin duela. Eta horren aurrean, zerbait egin beharko litzateke. Eta hori ideia berri, proiektu eta diagnostiko bidez egiten da. Inbertitza ez dut uste parkeak egitea, gauzak konpontzea edo kotxeak erostea denik; niretzat horiek gastuak dira, niretzat inbertitza etorkizunean inbertitza da. Orain gastatzea ezer bildu gabe, baina, etorkizunean biltzea. Arlo asko daude proiektuak eta lanak eskatzen dituztenak. Azalduko dut, eta mugikortasun jasangarria aipatuko dut berriz ere. Mugikortasunaren arazoa ez da konpontzen guk pentsatzen dugunarekin, aholkularitza behar dugu, eta gauza bera gertatzen da emigrazioarekin, klima aldaketarekin... Arlo asko daude non inbertitu, eta nik, aurrekontuetan, ez dut inoiz lerro horiek ikusi. Kudeaketarekin lotura handiago duten lerroak ikusi ditut, eskapeko arduradunek dituztenen antzerakoagoak. Besterik gabe, aurka bozkatu behar dugu.
- Aitor Zubizarreta: aurreratzen dut gu abstenitu egingo garela. Hasieratik, eta batzordean alde bozkatu genuen, gure borondatea proposamenak egitea eta akordio bat lortzen sariatza izan da. Gure proposamenak bi taldetan batu daitezke: alde batetik, aurreko urteetatik egiten eta gauzatzen ari diren jarduera edo aktibitateak (Atxorrotxeko indusketak, Gatz bidea, Sorautzeko bidegurutzea...); eta, bestetik, herritarrei pertsona bezala zuzenean eragiten dieten jarduerak, hau da, ez talde bezala, baizik eta banaka hartuta. Bigarren talde horretako proposamenetako bat prekarietatearena izan da. Iaz, jadanik, planteatu genuen, eta horrela jaso zen, gai horri heltzeko partida bat izatea; erabili ez den partida. Uste dugu prekarietateak garrantzi handia duela gure herrian eta gure inguruan, prekarietate soziala, lanarekin lotutakoa, gazteentzako etxebizitzarena, baliabide ekonomiko oso mugatuak dituzten pertsonena hartzen duelako. Hau da, pertsonak dira kaltetuak, eta gure gizarte politikarekin edo gure laguntzekin ez dakigu zein neurritan erantzuten dugun; beharbada, erantzuten diegu udaletxera etorri eta eskatzen dutenei, baina, ez dugu Eskoriatzaren errealityaren gaineko argazki bat; eta hori nahi genuen eta nahi dugu. Argazki hori izandakoan zuzendu ahal izango ditugu gure politikak, eta gure politikak mankomunituak izan behar dira, guztiok parte hartuta.

idazkaritza-kontuhartzailletza

Josuk esan du inbertsioak handitu egin direla, baina, guretzat garrantzitsuena izango litzateke pertsonetan egindako inbertsioak handitzea. Prekarietateaz gain, kezkatzen gaituen beste gai bat, eta horri buruz “argi gorria” pizten ari da, gazteen egoera da. Eta ez naiz ari 18 urte edo gehiagoko gazteez, nerabeez ari naiz. Duela gutxi ikerketa bat egin da eta gai oso serioak atera dira, drogak, aisia... bezalakoak. Uste dut badaudela beraien kezka azaldu eta Udalarekin harremanetan jarri eta Alkatearekin egon diren familiak. Pertsona horiekin hitz egin dugu eta ikusi dugu egoera horren aurrean zerbait egin ahal izateko gure aurrekontuetan partidaren bat aurreikusteko beharra dagoela. Iaz “kale hezitzalea” defendatzen genuen, baina, gaur egun ez dakigu zein den ekimen horren balorazioa, denetarik entzun baitugu. Orduan, ez dugu esaten Eskoriatzak “kale hezitzailerik” behar duenik, baizik eta gai hori aztertzeko beharra duela. Berriz ere pertsonen aurrean gaude. Eta aurrekontuan aurreikusten da partida bat, prekarietatea aztertzeko aurreikusten den bezala. Eta pertsonarekin lotutako hirugarren gaia presoen familiek bizi duten egoera da. Guziok ezagutzen dugu sakabanaketa politika; ongi, gai orokorra eman dezake, baina, Eskoriatzara etorrita, preso batzuen gurasoen egoera erreala dago hor, zailtasun handiak dituzte beraien seme-alabak ikusteko 1.000 kilometrotara daudelako. Udal bezala, eta giza eskubideen alde, beraiei laguntzeko prest gaude, eta uste dut horretarako formulak aurkitu behar ditugula. Eta hori da herritarri pertsona bezala zuzenean zuzendutako proposamenetan sartu dugun hirugarren gaia. Eta proposamen horiez gain, eta horiekin batera, gure lagunza eskaini dugu. Prest gaude eta geure burua eskaini dugu gai horiek guztioriek martxan jartzen laguntzeko. Badugu Gizarte Kontseilu bat gai horiek guztioriek aztertzeko eta jorratzeko. Uste dugu beharrezkoa dela adostasun osoa lortzea gai horietan. Izan ditugun bileretan jarrera positiboa ikusi ahal izan dugu, baina jarduera zehatzak martxan jartzerakoan zalantza sortu zaigu. Partida guzti horiek lagunza bat lortzeari baldintzatuta daude. Hau da, gauzatu lirateke diru lagunza bat jasoz gero; baina, jasotzen ez bada? Hori da kontua. Konpromiso horren falta. Uste dugu gure proposamenekin aurrekontuak koherentzia bat lortu duela, eta inbertsio materialak aurreikustearaz gain pertsonengana pentzatzen ere hasten dela. Aitortzen dut gure proposamenak jaso direla, ezin dut ukatu, baina, ez dugu ikusten konpromiso hori. Eta pena da, baina, ez dugu akordiorik lortu, eta pena da. Hala ere, guk gure lagunza eskaintzen jarraitzen dugu, eta ahalegindu behar gara, herritarak kontuan hartuta, proposatu ditugun gaiak aurrera egin dezaten. Eta horretan tematuko gara, uste dugulako gai horiek ezin direla baztertu. Gai horiek guztioi eragiten digute,

idazkaritza-kontuhartzailletza

herri solidario eta zoriontsua nahi baldin badugu, guztion lagunza behar dugu. Pertsonek beraien beharrak asetuta baldin badituzte aukera gehiago dituzte zoriontsu izateko. Gure lagunza eskaintzeaz gain, aitortzen dugu ere, eta hori ere esan behar da, agintaldiko lehenengo aurrekontuetatik aurrekontu hauetara egondako jarrera aldaketa, ez baitute zerikusirik; aldea ikaragarria da bai EAJren aldetik bai gure aldetik, aurrekontu haietan ez zen egon elkarriketarako aukerarik, eta, orain, egoera hobera joan da. Izpiritutu horrekin jarraitu behar dugu, baina, pena izan da akordio bat sinatzera heldu ez izana.

Josu Ezkurdiak eskertu egin du BILDUko zinegotziak eskainitako lagunza, eta adierazi du, lau urte hauetan egin duten bezala, elkarrekin lan egiteko prest daudela. Hau ere gehitu du: egia da beharbada proiektu batzuk martxan jarri behar direla, nahiz eta diru laguntzarik ez egon, proiektu garrantzitsuak direlako eta ados gaude zuen planteamenduarekin. Hasiera batean planteatu baguenen ere proiektu batzuk diru laguntzaren bat jasotzearen menpe egotea gauzatzeko, edo lagunza jaso ondoren gauzatzea, horren arrazoia izan da beste jarduera batzuetarako erabili daitekeen dirua libre gelditza lortzen zela. Horrek ez du esan nahi urtean zehar beharrezkoia ikusten baldin bada zerbait egitea, diru lagunza jaso edo ez, gaia ez dela berraztertuko. Elkarriketarako jarrerari dagokionez, nik uste dut gure aldetik egon dela, baina, beharbada, lehenengo urtean ez genuelako elkar ezagutzen edo egoera beste bat zelako, guzton jarrera ez dela bera izan. Eta elkarriketarako jarrera hori ikusi dugu agintaldiaren amaieran, “herri bat eraikitzeo” guztiz garrantzitsutzat jotzen dudan jarrera, bestalde. Eskoriatza, Gipuzkoa edo Euskadi guzton artean eraiki behar dugu, alde batera lagata gure arteko desberdintasunak eta batzen gaituena jarriz mahaigainean.

- Aitor Zubizarreta: zalantza bat dut: Gasteizen akordiorik balego akordiorik egongo zen Eskoriatzan?

Josu Ezkurdiak erantzun dio ez duela zerikusirik, pena izan dela Gasteizen akordiorik ez lortzea, eta uste duela, Katalunian egin den bezala, independentziaren aldeko alderdi guztiekin ahalegina egin beharko luketela akordio bat lortzeko Euskadin.

Eztabaida amaituta, bozketa egin da, eta 5 zinegotzik alde bozkatuta (EAJ/PNVko 4 eta EEEko 1), IRABAZIko zinegotziak aurka bozkatuta eta EH BILDUKO 4 zinegotziak abstenituta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

2018/12/18

Ez Ohiko Osoko Bilkura

Pleno extraordinario



idazkaritza-kontuhartzailletza

Lehenengoa.- Hasiera batean onartzea 5.590.028,86 €-ko udal aurrekontua.

Bigarrena.- 2019ko aurrekontua exekutatzeko araudia eta 2019ko aurrekontu orokorra osatzen duen gainontzeko dokumentazioa hasiera batean onartzea, apirilaren 15eko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuz (LED) onartutako Testu Bategineko 445. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hirugarrena.- Erreklamazioak edo iradokizunak jartzeko hamabost egunez jendaurrean egoteko epean inolako erreklamaziorik ez balego, onarpena behin betikotzat jotzea.

3.- 2019. URTERAKO LANPOSTU ZERRENDA ETA PLANTILLA ORGANIKOA ONARTZEA.

Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- 2019rako plantilla organikoa eta lanpostu zerrenda onartzea.

Bigarrena.- Dokumentu biak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

4.- DIRU LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA 2019-KO EKITALDIRA EGUNERATZEA.

Udalbatzarrak, 2016ko otsailaren 23an egindako bilkuran, ondorengo erabakiak hartu zituen:

Lehenengoa.- Hasiera batean onartzea Eskoriatzako Udalaren 2016-2019 diru laguntzen plan estrategikoak.

Bigarrena.- Plan hori jendaurrean jartzea 30 lanegunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak plana aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

Hirugarrena.- Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, plan hori behin betiko onartutzat joko da bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

Hasierako onarpenaren aurkako erreklamazio edo iradokizunik egon ez zenez, eta Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 49. artikuluaren c) letran apirilaren 21eko 11/1999 Legeak gehitutako azken paragrafoan aurreikusitakoaren arabera, Udalbatzarrak 2013ko urriaren 29an hasiera batean hartutako erabakia behin betikotzat bihurtu zen.

idazkaritza-kontuhartzailletza

Plan horrek, 4. eta 12. artikuluetan, eranskineko dokumentuetara bidaliz, 2016ko ekitaldirako aurreikusitako laguntzak aurreikusten ditu.

2019ko ekitaldirako aurrekontua onartuta, planeko ERANSKINAK aurrekontu horren edukira egokitu behar dira.

Horregatik, eta Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- ERANSKINEAN jaso bezala egunerasoak 2016-2019 diru laguntzen plan estrategikoaren ERANSKINAK, plana 2019ko ekitaldiko aurrekontuen edukira egokitzeo.

Rafa Bernalek eskatuta, erabaki da gai zerrendako 5. puntu bilkura amaieran aztertzea.

5.- BERMEA KITATZEKO GOITU S.L. ENPRESAK EGINDAKO ESKAERA (Santa Ana komentuko kapera -Zaldibar antzokia- gizarte eta kultur erabileraetarako birgaitu eta egokitzeko proiektuko 2. fasea).

GOITU ERAIKUNTZAK S.L. enpresak ELKARGI S.G.R.-ek emandako abala jarri zuen 2012ko uztailaren 3an Santa Ana komentuko kapera -Zaldibar antzokia- gizarte eta kultur erabileraetarako birgaitu eta egokitzeko proiektuko 2. fasea exekutatzeko 2012ko uztailaren 19ko erabakiz esleitutako kontratutik sortutako betebeharrauk zuzen beteko zituela berme gisa.

Abal hori kitatzeko baimena eskatu du urriaren 1ean.

Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- ELKARGI S.G.R.-k GOITU ERAIKUNTZAK S.L. enpresaren alde jarritako 20.491,54 euroko abala (zenbakia: 2012/1928) kitatzeko baimena ematea. Abal hori Santa Ana komentuko kapera -Zaldibar antzokia- gizarte eta kultur erabileraetarako birgaitu eta egokitzeko proiektuko 2. fasea exekutatzeko kontratutik sortutako betebeharrauk zuzen beteko ziren berme gisa jarri zen.



idazkaritza-kontuhartzailletza

Bigarrena.- Aipatutako abalaren originala GOITU ERAIKUNTZAK S.L. enpresari ematea abalaren kitapena izapidetu dezan.

6.- BERMEA KITATZEKO GOITU S.L. ENPRESAK EGINDAKO ESKAERA (Santa Ana komentuko kapera -Zaldibar antzokia- gizarte eta kultur erabileretarako birgaitu eta egokitzeko proiektuko 3. fasea).

GOITU ERAIKUNTZAK S.L. enpresak ELKARGI S.G.R.-ek emandako abala jarri zuen 2014ko apirilaren 7an Santa Ana komentuko kapera -Zaldibar antzokia- gizarte eta kultur erabileretarako birgaitu eta egokitzeko proiektuko 3. fasea exekutatzeko 2014ko apirilaren 4ko erabakiz esleitutako kontratutik sortutako betebeharrak zuzen beteko zituela berme gisa.

Abal hori kitatzeko baimena eskatu du urriaren 1ean.

Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- ELKARGI S.G.R.-k GOITU ERAIKUNTZAK S.L. enpresaren alde jarritako 11.454,43 euroko abala (zenbakia: 2014/0595) kitatzeko baimena ematea. Abal hori Santa Ana komentuko kapera -Zaldibar antzokia- gizarte eta kultur erabileretarako birgaitu eta egokitzeko proiektuko 3. fasea exekutatzeko kontratutik sortutako betebeharrak zuzen beteko ziren berme gisa jarri zen.

Bigarrena.- Aipatutako abalaren originala GOITU ERAIKUNTZAK S.L. enpresari ematea abalaren kitapena izapidetu dezan.

8.- ESKRIATZAKO UDALEAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA (VI. PLANGINTZALDIA) ETA EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA (IV. PLANGINTZADIA) ONARTZEA.

Kultura, Kirolak eta Euskara batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:



idazkaritza-kontuhartzailletza

Lehenengoa.- Eskoriatzako Udalean euskararen erabilera normalizatzeko VI. plana onartzea.

Bigarrena.- Eskoriatzan euskara sustatzeko ekintza plana (IV. plangintzadia) onartzea.

Hirugarrena.- Erabaki horien berri ematea Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntz Politika Sailari.

9.- IRABAZI ESKORIATZAK AURKEZTUTAKO MOZIOA ANIMALIAK EDUKITZEA ETA BABESTEA ARAUTUKO DUEN UDAL ORDENANTZA EGITEARI BURUZ.

Hitza eman ondoren, onar dadin Udalbatzarrai proposatzen dion mozioa labur azaldu du Rafael Bernalek, hain zuzen ere honako hau hitzez hitz:

A LA ATENCIÓN DE LOS GRUPOS POLÍTICOS MUNICIPALES

Rafael Bernal Gato, Portavoz del Grupo municipal Irabazi Eskoriatza, de acuerdo con el Reglamento Municipal, presenta para su debate en pleno la siguiente MOCIÓN relativa a la elaboración de una Ordenanza municipal reguladora de la protección y tenencia de animales.

JUSTIFICACIÓN

La convivencia en el ámbito doméstico con animales es un fenómeno frecuente en el marco de todas las sociedades, tratándose de una arraigada costumbre en las sociedades humanas.

Gracias al mayor grado de desarrollo social y cultural de nuestro entorno, a la influencia de otros modelos de relación con los animales, como el de las sociedades anglosajonas y nórdicas, y a corrientes ideológicas y de pensamiento partidarias de considerar a animales como sujeto de derechos, estamos asistiendo a un proceso de cambio en la consideración del respeto hacia los animales y en la sensibilización a favor de un mayor grado de protección y de bienestar para todos los animales.

Uno de los objetivos clásicos de las Ordenanzas municipales de animales se refiere a la tenencia de éstos y por lo tanto, a la ordenación de los conflictos que pueden afectar directamente a la convivencia ciudadana con los animales. Estas permiten establecer un conjunto de obligaciones a las personas titulares de los animales con el objeto de minimizar los riesgos varios que pueden suponer los animales en sociedad, intentando garantizar una convivencia social adecuada, e incidiendo en la necesidad de una tenencia

2018/12/18

Ez Ohiko Osoko Bilkura

Pleno extraordinario



idazkaritza-kontuhartzailletza

responsable, tanto en el trato con el animal, como en la consideración y en el respeto hacia el resto de las personas con las que se convive en el municipio.

Ahora bien, al lado de esta finalidad, la Ordenanza debe potenciar y enfatizar el carácter proteccionista dirigido hacia los animales y en concreto el concepto de bienestar animal, pretendiendo garantizar a los mismos, una vida conforme a su propia naturaleza y las atenciones mínimas que deben recibir los animales en cuanto al trato, higiene, cuidado, protección y transporte, facilitando su desarrollo integral y natural. Es, por lo tanto, que la Ordenanza debe permitir que se pueda alcanzar un máximo nivel de protección y bienestar de los animales, garantizar una tenencia responsable y reducir los abandonos de los mismos, extravíos reiterados, procreación incontrolada, minimizando los riesgos para la sanidad ambiental y preservando la tranquilidad, salud y seguridad de las personas, bienes, y animales. Debe fijar las atenciones mínimas que han de recibir los animales en cuanto a trato, higiene y cuidado, protección y transporte, y establece las normas sobre su estancia en establecimientos especializados, atención sanitaria, comercialización y venta.

Por todo lo anterior, se formula la siguiente

MOCIÓN

Considerando lo expuesto, IRABAZI ESKORIATZA propone que el Ayuntamiento de Eskoriatza proceda a la elaboración de una ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA PROTECCIÓN Y TENENCIA DE ANIMALES.

En Eskoriatza, a 21 de noviembre de 2018

*Rafael Bernal Gato
Portavoz de Irabazi Eskoriatza*

**2018/12/18
Ez Ohiko Osoko Bilkura
Pleno extraordinario
13**

idazkaritza-kontuhartzailletza

Rafael Bernalek amaituta, ondorengoek hitz egin dute:

- Josu Ezkurdia: esan behar dut proiektua interesgarria iruditzen zaigula, eta arraroa dela hainbeste urte pasata Eskoriatzak ez izatea oraindik ordenantzari; esan behar da ere guk ere, lau urtetan, arrazoi batzuengatik edo besteengatik, edo eguneroko lanean beste gauza batzuetaz arduratu garelako, ez dugula horrelakorik egin. Ideia ona iruditzen zaigu, baina, hala ere, aurka bozkatuko dugu bi arrazoiengatik. Uste dugu orain ez dela unea bi arrazoiengatik: bata, uste dugulako batzordean aztertzeko gai bat dela, eta batzordean diot bertan parte hartzen dugulako alderdi guztiok, eta beste gai batzuekin - baita ordenantza fiskalekin ere- egiten den bezala, hori baita ordenantzak aztertu eta eztabaidatzeko lekua. Ez zaigu iruditzen zentzua duenik Udalak bere buruari agintza mozio baten bidez ordenantza bat egitea onartzeko. Logikoena, ordenantza bat egiteko edo ez egiteko beharra, batzordean zuzenean planteatzea da, eta bertan erabakitakoaren arabera jokatzea. Baino, mozio bat aurkezteak, hori gure eskumena denean, ez du zentzurik. Beste arrazoia da, esan dudan bezala, ez zaigula iruditzen une egokia denik. Ostiralean amaitu zen "Eskoriatzak merezi du" proiektuaren barruan herritarrei egindako inkestari erantzuteko epea. Proiektu horretan eskoriatzarrei galdetegi bat banatu zaie hainbat zerbitzuei eta hainbat gairi (gazteen lokala, kaleetako abiadura muga eta txakur edo animaliak edukitzea arautzea) ematen dioten lehentasunari buruz. Oraindik ez ditugu aztertu erantzunak, ostiralean amaitu zelako epea, baina, espero dut prozesu horren ondoren jakingo dugula zer pentsatzen duten herritarrek gai horri buruz. Gerta daiteke hori ez izatea beraientzat lehentasun gehien duen gaietariko bat. Horregatik, uste dugu itxaron egin behar dela inkestaren emaitza ezagutu arte, eta horren arabera, hala badagokio, ordenantza martxan jartzea. Horregatik, aurka bozkatuko dugu, ez ideia txarra iruditzen zaigulako, baizik eta uste dugulako ez dela unea.
- Rafael Bernal: ea ulertzen dudan. Kontua da ideia ona iruditzen zaizuela, Udalak gai hori araututa izan beharko lukeela, baina arazoa denbora dela eta batzorde batean aurkeztu gabe mozio baten bidez egin izana. Nik esan behar dudana da mozio hau duela hilabete aurkeztu zela. Zuek zarete denboraz aurkeztu behar dela esaten duzuenok, eta zuek ez duzue ezer esan horri buruz, herenegun posta elektroniko bat bidali nuen gaiari buruz

idazkaritza-kontuhartzailletza

galdetzeko, eta segurutzat jotzen nuen gauza positibo bat izango zela. Ulertzen dut ez dagoela ezer politikorik atzetik, besterik gabe garatu daitekeen gauza bat dela. Esatea jendeak esaten duenari itxaron behar diogula, jendea delako ordenantzei buruz erabaki behar duena, ba, ez dakit, jaiki, hemendik alde egin eta inkestak egin ditzakegu beti, eta jendeak erabaki dezala. Eta demokrazia parte hartzalearen alde nago, baina, parte hartze dokumentu baten bidez, ez postontzi batera bidaltzen den inuesta baten bidez, batzuk erantzuten dutena eta beste batzuk ez, eta horrekin gehiengoa izan, erantzunda gelditu edo ez parte hartze maila batekin. Niri iruditzen zait horrek ez duela ez hanka ez buru. Ez dakit, ez dut argumentazioa ulertzen. Lehenengo baietz, ideia ona izan dela; gero ezetz, ez direlako bide egokiak jarraitu eta ez dakit zeintzuk izan beharko liratekeen bide horiek... hori batzordera eraman? Beno, nahi baldin baduzue kendu egingo dut eta batzordean aurkeztu.

Mozioa kentzeko aukera proposatu eta horrek batzordean aurrera egiteko duen aukera baloratu ondoren, mozioa ez kentzea eta bototara jartzea erabaki du.

Josu Ezkurdiak erantzun dio ulertu dituela bere arrazoia, beraiek ez daudela “animaliak edukitza” ordenantza baten bidez arautzearen aurka, baizik eta gaia mozio baten bidez aztertzearen aurka, uste dutelako ez dela mozio baten bidez aztertu beharreko gai bat. Honakoa ere esan du: batzordera eman dezakezu bertan aztertzeko, eta esango dizut batzordera eraman diren gaietako % 80 bat onartu izan direla, ate gutxi itxi ditugu batzorde batean, hori lehendabizi. Eta, bigarren, zuk esan duzu “hainbat pertsonek paper batean” erantzun, ba, VOX taldekoren batek berdin esango luke. 100 pertsona baino gehiagok erantzun duten inuesta egitea herritarrei konsultatzea deitzen da, parte hartza deitzen da. Eta nik uste dut garrantzitsua dela. Inuesta oso erraza izan da jendeak ahalik eta errazen erantzun zezan (edukia azaldu du labur). Eta nik, nagoen kargutik, eta preseski kargu honetan nagoelako, beti entzungo diet herritarrei esan behar didatena. Ez dut uste hain burugabea denik herritarrek zer esaten duten jakiteari itxarotea, bi hilabete barru jakingo duguna, gai horiek martxan jartzeko. Ez da ezergatik, baina, beharbada esango didate baietz txakurrei, baina, badirela gauza garrantzitsuagoak; bada, kasu egingo diet. Orain egingo diet kasu, eta gero ere bai.

Ondoren, Rafa Bernalek eta Josu Ezkurdiak lehengo bidetik jarraitu dute eztabaidatzen, hau da, egindako inkestari buruz eta mozioa batzordera eramatea bidezkoa den edo ez.



idazkaritza-kontuhartzailletza

Bien arteko eztabaida amaituta, Rafa Bernalek erabaki du mozioa Udalbatzarraren bototara jartzea.

- Aitor Zubizarreta: guk alde bozkatuko dugu, herriak eskatzen duen gai bati buruz konpromiso bat hartzea delako, LAGUNKOIA bezalako proiektuetan ere gaia aztertu delako, eta kezka sortzen duelako, esaterako, txakur kakak... Horregatik bozkatuko dugu alde, gaiari heldu eta garatu dezagun esatea delako. Prest nago ordenantza zirriborro bat ekartzeko mahaira eta testu horren gainean lanean hasteko. Uste dugu landu beharreko gaia dela, nolabait esateko, "usain txarra" duen gaia delako.

Hitz egiteko txandak amaituta, eta kontrako 5 botorekin (EAJ-PNVko 4 eta EEEko 1) eta aldeko 5 botorekin (IRABAZIko1 eta BILDuko 4), hau da berdiniketa izanda, mozioa ez da onartu jarduneko Alkate-Udalburuaren kalitatezko botoarengatik.

10.- EH BILDU ESKORIATZAK AURKEZTUTAKO MOZIOA PRESOAK URRENTZEKO POLITIKAREN AURKA.

Hitza eman ondoren, Aitor Zubizarretak argitu du bere taldeak aurkezten badu ere mozio hau, EUSKAL HERRIKO FORO SOZIALAK bultzatutako dela, eta foro horretan, PP izan ezik, talde politiko guztiak, sindikatuek eta hainbat erakundek hartzen dutela parte. Hau ere gehitu du: foro horrek mozio bat prestatu du, hainbat udaletan onartu dena, eta Udal honetara ekartzen dugu presoen inguruko egoera aurrekontua negoziatzerakoan ere kontuan izan delako. Mozioaren bidez eskatzen da espetxe politika behingoz amaitu dadila, presoak lehenbailehen hurbildu ditzatela, eta azken finean, Frantziako eta Espainiako legeak aplika daitezela. Ez da besterik eskatzen.

Ondoren transkribatzen da aurkeztutako mozioa:

ESKORIATZAKO UDALAREN MOZIOA

Arabako Batzar Nagusiak mozio bat onartu zuten apirilaren 18an espetxean dauden pertsonak hurrentzearen politikarekin ados ez zeudela adierazteko.

Erabaki horrek Euskadiko Autonomia Erkidegoko hiru batzar nagusiek hartutako zirkulua ixten zuen, Gipuzkoako Batzar Nagusiak 2016ko abenduaren 14an eta Bizkaikoak 2017ko ekainaren 7an hartutako erabakien ondoren.

Erabaki hori egun berean sinatu zuten Euskadiko Autonomia Erkidegoko sindikatu guztiekin: ELAK, LABek, CCOOK, UGTk, ESK-k, Steilasek, EHNEk, Hiruk eta Etxaldek.

Gure herriko ondorengo pertsonak daude, gaur egun, espetxean:

Marixol Iparragirre Guenetxea, Réau-Paris espetxean, gure herritik 911 kilometroetara.

idazkaritza-kontuhartzailletza

*Mikel Albisu Iriarte, Réauy-Paris espetxean, gure herritik 911 kilometroetara.
Ondorioz, Udalbatzarrak bere egin nahi du Batzar Nagusietako ondorengo erabakia:*

***Lege Orokorean askatasuna kentzeko zigorrak betetzean deserrotzea
saihesteko ezarritakoa kontuan izanik, zigor horien bergizarteratze
printzipioen arabera, adierazten dute ez daudela ados urrunte espelxe-
politikarekin. Alde horretatik, ETAren indarkeriaren behin betiko etenak
irekitako garai berriaren barruan, uste dute espelxe-politika berri bat
behar dela, hain zuzen ere presoak zigorrak gizarte- eta familia-erroak
dituen lekutik urrun betetzea saihesten duen politika bat, zeinak
erraztuko baitu bere senideekin harremana izatea, bere seme-alaba
adingabeen ongizatera begira eta horiek gurasoekin egoteko duten
eskubidearen alde.***

*Eskoriatzan 2018ko abenduaren 18an
EH BILDU- Eskoriatza udal taldeak.*

Hitz egiteko txanda hasita, ondorengoen hitz egin dute:

- Josu Ezkurdia: denek ezagutzen dute zein den EAJ/PNVren jarrera gai horretan, hau da, pertsona guztien eskubideak defendatzea. Eta horrela, historikoki ados egon gara BILDUREkin edo beste talde batzuekin horrelako eskubidek defenditzerakoan. Kasu honetan guk mozio alternatibo bat aurkezten dugu, eta ez aurkezu den mozioan ondo ez dagoen zerbaitek ikusten dugulako, baizik eta guk aurkezten duguna Gipuzkoako Batzar Nagusietan onartu zelako 2016an hainbat talde politikok, PP izan ezik, alde bozkatuta. Gure proposamena da mozio biak onartzeke uztea eta Gipuzkoako Batzar Nagusiei eskatzea, Bizkaiko Batzar Nagusiek egin bezala, BILDUk aurkeztutako mozioa onar dezatela, horrela, adostasun handiagoa lortzeko, gehiago baitira ordezkatzen dituzten herritarra eta talde politikoak.

Ondoren EAJ-PNVk aurkeztutako mozioa transkribatzen da:

MOZIOA

1. *Indibidualizazio, humanitate, eginiko kaltearen aitortza eta gizarteratzearen printzipio legalen sustapen aktiboan oinarritutako espelxe-politika bat babesteko eta bultzatzeko*

idazkaritza-kontuhartzailletza

konpromisoa bere egiten du Eskoriatzako Udalak, eta horrelako politika baten ondorioetako bat presoak haien familia-ingurunetik gertu dauden espetxeetara eramatea da.

2. *Eskoriatzako Udalak Gobernuari eskatzen dio espetxe-politika birbideratzeko, helburu nagusitzat gizarteratzea ezartzeko, eta eragin humanitario handiena duen arazoari lehentasunez erantzuteko; eta halaber eskatzen dio garatzeko espetxe-arloko Arautegiko 4. artikuluan jasotako eskubideak benetan betetzean oinarritutako espetxe-politika.*
 3. *Hainbat euskal preso egoera larrian daudenez gero, horren aurrean Eskoriatzako Udalak hau eskatzen dio Espainiako Gobernuari: espetxe-arloko Arautegiko 104.4 artikuluaren aplikazio ez-murriztailea egin diezaiela gaixotasun larri edo sendagaitzak dituzten euskal presoei.*
 4. *Presoen urruntze- eta dispertsio-politika zigorren birgizarteratze-helburuaren aurkakoa da, eta ez du betetzen Espetxeen Lege Organiko Orokorreko 12. artikulua, azaltzen duena zigortuen deserrotze soziala ekiditeko beharra. Presoez gain, politika horren ondorioak modu zuzenean jasan dituen kolektiboa presoen familiena da.*
 5. *Eskoriatzako Udalak salbuespeneko kartzela politika pairatzen ari diren preso eta familia gipuzkoarrei babesia emateko eta ahal duen neurrian laguntzeko konpromisoa hartzen du*
 6. *Eskoriatzako Udalak azpimarratu nahi du urruntze-politikak bereziki presoen senide eta gertukoei dakarzien ondorio injustuak, eta, horien artean, gertatu diren zorigaitzoko trafiko-istripuak.*
 7. *Eskoriatzako Udalak humanitate printzipioa izatera dei egiten du, eta espainiar Gobernuari eskatzen dio artikulatu dezala presoak hurbiltzeko politika bat. Helburu nagusia da presoen familiak askatzea urruntzeak eragindako karga ekonomikotik, giza kargatik eta arriskuetatik.*
 8. *Eskoriatzako Udalak akordio hau Audientzia Nazionaleko Bijilantziako Epaitegi Zentralera igorriko dute, haren jurisdikzio eta tutelapean baitaude aipatutako pertsonak.*
-
- Aitor Zubizarreta: guk uste dugu 2016. urtetik, Gipuzkoako Batzar Nagusiek mozioa onartu zutenetik, gauza asko gertatu direla eta orain egoera desberdina dela. Orain 2018. urte amaieran gaude, eta bi urte horietan hainbat gauza gertatu dira, horien artean, ETAren desegitea. Une honetan badugu Euskal Herrian talde politiko guztiak, sindikatuak, erakundeak... ordezkatuta dauden Foro Sozial bat, eta uste dugu mozio hori bozkatu behar dugula. Nahi baduzue, testuan beste puntu bat sar dezakegu Batzar Nagusiei mozio hori onar dezatela eskatzeko. Gaur egungo egoerari egokitzen den mozioa bozkatzea eskatzen dugu.

idazkaritza-kontuhartzailletza

